

Neguan badira lore politak, eta horren lekuko da lilipa. Urtarrilaren bukaera aldean, zenbaitetan elurrartean, belardiak eta horiz janzten hasten dira. Itsas maldetatik gure mendietako zelai eta zapaldetaraino zabalitzen da (Gorbeia, Hernio, Aiako Harria, Urbasa, ...) landare polit hau, lehenago aipaturiko belardiak eta txilardegiak berarentzat oso begiko habitatak direlarik.



Lilipa hau, Frantzia/Iberia atlantiar aldeko landare endemikoa dugu, eta hegoaldeko zenbait zonatan azaltzen bada ere, atlantiar eragineko guneetara mugatzen da batez ere, lurzoru heze, azido eta silizeoak oso begikoak izaten dituelarik. Landare hau oso tamaina desberdinetakoa izaten da (10-30 cm),

baina erraz identifikatuko dugu bere lore bakunari begiratzen badiogu. Lore hau inbutu-formakoa izanik, zurtoinetik gutxi-asko horizontalki mantentzeko joera izaten du. Bere kolore horiak tonu desberdinak izan ditzake, usain ahulekoa delarik. Lore-koroaren barruan lorezilak; pistiloa berriz, kanpoan. Hostoak berde biziak izaten dira, oso hestuek, ia-ia zilindrikoak eta erreboil txiki bategatik (bere sustraitik) 2-4 irteten dira. Erreboil hauek zertxobait pozoitsuak direla azpimarratu behar da.

Lilipa hau, 1861. urtean zitatuzen Aiako Harrian, gaur egun leku berean ikus dezakegularik. Gure inguruko botanikarien ustez, Euskal Herrian azaltzen diren *Narcissus bulbocodium* guztiak *citrinus* subspeziera eraman behar direla zehazten dute. Egia esan, jenero honen barruan zenbait espezie determinatzeko botanikariek zailtasunak dituzte; espezieen arteko hibridazioak egoten baitira, espezie dexente lore apaingarri modura ere erabiliz. Europan 40 espezie inguru eza gutzen dira, hauetariko 15 bat Euskal Herrian agertzen direlarik (2 hibrido barne). Landare gehienak hedapen desberdineko endemismoak dira eta berriro ere hurrengo batean jenero hau aztertzeko asmoa badugu.



NEGUKO LOREA: LILIPA

J. Terés

FITXA TEKNIKOA

Lilipa

Familia: Amarilidazeoak
Espezia: *Narcissus bulbocodium*
subsp. citrinus
Banaketa: Sakabanatua
Bizkaian: Bakana
Sendabelarra: - - - - -

